

9. KOSTU EGITURA

HASIERAKO INBERTSIOAREN KOSTUAK

- Enpresa eratzeko gastuak: irekiera-lizentzia, jarduera-lizentzia, negozioa abian jartzeko nahitaezko beste tasa batzuk, notario- eta erregistro-gastuak.
- Lokalerako dirua ez dugu behar, gutako batek lokal bat duelako, gero zapatekin hasteko, baina lokala egokitzeko gastuak izango ditugu.
- Hasieran bigarren eskuko makinak erosiko ditugu (550€)
- Ekipamendu informatikoa
- Softwarea.
- Bulegoko altzariak
- Lehengo zapatak egiteko materiala

KOSTU FINKOAK

- Aktibo hauen amortizazioa, hau da, aktibo hauen urteroko balio-galera, erabileragatik edo zaharkitzeagatik:
 - o Makinak
 - o Ekipamendu informatikoa
 - o Softwarea.
 - o Bulegoko altzariak
- Langileen soldatak. Hasieran, gu lauron gutxieneko soldata eta Gizarte Segurantzako kotizazioak. Hasiera batean, ez dugu inolako langileren laguntzarik beharko, guk lan egingo baitugu eta, enpresa handitu ahala, langileak kontratatuko ditugu, bertan, zapatak egiten dituztenak sartzen dira.
- Maileguen interesa
- Lokalaren segurua
- Lokalaren gastuak ordaindu beharko ditugu (600€ hilabetero), hau da, horniduren parte finkoa (ura, elektrizitatea, telefonoa, internet...)

KOSTU ALDAKORRAK

-Zapatak ekoizteko material birziklatuaren kontsumoa (250 €) eta bigarren eskuko materiala ere erabiliko dugu.

-Garraio-gastuak

-Horniduren kontsumoa (ura, elektrizitatea, bulegoko materiala, telefonoa...)

-Publizitatea

-Langileen ekipamenduak eta garbiketa eta higiene produktuetan (eskularruak, maskarak,...)

-Gure zapatak banatzeko eta leku batetik bestera mugitzeko edozein lekuetara enpresa bat kontratatuko dugu. (550 €)

-Propaganda egiteko materiala (izango dira 330 € inguru) eta produktuak enbalatzeko materiala (izango dira 500€ inguru).